

# PABLO PALACIO: EZINEZKO IDENTITATEEKIKO GORPUTZ- BIOLENTZIA ANDEEN INGURUETAN

**Diego Falconí**

*Universitat Autònoma de Barcelona<sup>1</sup>*

Diego.Falconi@uab.cat


**Aipatzeko gomendioa** || FALCONÍ, Diego (2012): "Pablo Palacio: ezinezko identitateekiko gorputz-biolentzia Andeen inguruetan" [artikulu linean], *452°F. Lite-raturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 6, 39-55, [Kontsulta data: dd/mm/aa], <[http://www.452f.com/pdf/numero06/06\\_452f-mono-diego-falconi-eu.pdf](http://www.452f.com/pdf/numero06/06_452f-mono-diego-falconi-eu.pdf)>

**Ilustrazioa** || Paula González Nogueiras

**Itzulpena** || Aroa Huarte

**Artikuluua** || Jasota: 23/07/2011 | Komite zientifikoak onartuta: 31/10/2011 | Argitaratuta: 01/2012

**Lizentzia** || 3.0 Creative Commons lizentzia Aitortu - ez merkataritzarako - lan eratorririk gabe



**Laburpena** || Pablo Palacio, joan den mendeko bigarren hamarkadako idazle ekuadortarra, bere ipuinetan gorputz arraroen katalogo bat egiteaz arduratu zen: sexualitate anbiguo eta artegagarridun gorputzak, berari legokiokkeen Andeetako kanonetik aldentzen direnak. Hala ere, deigarrien suertatzen den auzietako bat zera da, gorputz horietako batzuk boterearen zenbait diskurtsoen aldetik modu bortitz batean diziplinatzen direla. Lan honek literaturaren teoriatik aztertzen ditu aipatu irainak, idazlearen bi ipuinetan emakumeen eta *homosexualen* identitatearen kontra jazotzen den biolentzia kontutan hartuz. Era berean, errepresentazioaren ekonomia, biolentzia, honek testu literarioarekiko duen erlazioa edota zaugarritasuna (irainaren sine qua non ezaugarria den heinean) bezalako gaiak aztertzen ditu, betiere Andeetako hainbat gorputzen erreferentzia mantenduz.

**Gako hitzak** || Ikasketa andetarrak | Homosexualitatearen errepresentazioa | Genero indarkeria | Ezinezko gorputzak | Zaugarritasuna | Ekuadortar abangoardia.

**Abstract** || Pablo Palacio was an Ecuadorian writer who, in the 1920's, built within his narrative a catalog of rare bodies with ambiguous and disturbing sexualities, characterizations that are quite different from ones portrayed in the Andean tradition to which Palacio belongs. Nonetheless one of the most issues striking facts of these characters is that their bodies are disciplined by certain discourses of power in a violent way. This paper explores trough literary theory such abuse and violence on women and homosexual identities in two of his stories. The aim of the paper is to investigate issues such as violence, economy of representation, its relationship with the literary text and vulnerability, as a sine qua non norm of abuse, in certain bodies in the area of the Andes.

**Keywords** || Andean Studies | Homosexual representation | Domestic Violence | Impossible Bodies | Vulnerability | Ecuadorian Avantgard.

## 0. Sarrera

Monginek zioen gaur egunean «economía de las imágenes de violencia» delako bat existitzen dela, non subjektuak «contempla una violencia imaginada en un laboratorio, una violencia *in vitro* que no le concierne» (1992: 141, 143). Jarrera honek katarsiaren nozio aristotelikora egiten du bira, oraingo honetan merkatu ekonomiara moldatuta, eta eztabaidan jartzen du nola biolentziaren errepresentazioak –gaur egun burgestutako giroen kontsumo objektu bezala kokatzen dena– neurri handi batean ziurtasuna ematen dion ikusleari, obra artistikoa dela medio halako fenomenoaren aurrean sentibera izanez bertatik bertara *aurre egin* behar izango ez diolakoan.

Monginen proposamenak, biolentziaren errepresentazioa *defentsa erosorako* mekanismo moduan aurkezten duenak, zentzua hartuko du bi gauza kontutan hartzen badira: alde batetik, mendebaldeko literatura-sisteman hainbat genero literarioen bitartez biolentzia eta bere biktimak erretratatzeari garrantzia eman diotela; eta bestetik, mundu akademikoan gaia aztertu duen liburu, tesi eta artikulu sorta ederra egon dela.

Zentzu horretan, komeni da momentu batez gorputz-indarkeriari erreparatzea. Errepresentazioaren ekonomiaren barruan bortxa jasan duen gorputzak leku *pribilegiatua* dauka. Kasu honetan, bortxa jasan duen eta ustez urruti dagoen gorputz *errealarekin* egiten den ikusgaitasun/ikusezintasun eta gertutasun/urruntasun ispilu-jokoa konplikatuagoa da. Konplexutasun hori dela medio errepresentazioek ikuslea dardararazi eta hunkitu egiten dute oraino, eta badirudi konplexutasuna bera gorputzaren estatus ambiguo horretatik datorrela, gorputza zaintza berezi bat merezi duen kategoria *zaugarri* bat den heinean.

Hain zuzen ere, alde batetik, gaur egun gorputzak inoizko babes-estatus *unibertsalena* dauka –neurri handi batean osotasun pertsonalerako eskubidearen adierazpena *ius cogens* moduan egiteagatik<sup>2</sup>—; eta bestetik, egia da baita ere Butlerrek dioen bezala «la cuestión que [...] preocupa a la luz de los recientes acontecimientos [la guerra del terror estadounidense] es lo que cuenta como humano, las vidas que cuentan como vidas y, finalmente, *lo que hace que una vida valga la pena*» (2004: 46). Dikotomia anbibalente honek, non gorputza juridikoki babestuta egon arren asko eta asko sistematikoki bortxatzen jarraitzen dituzten, biolentziaren irudien ekonomian sortzen diren testuak eta berauen harrera baldintzatzen ditu ezbairik gabe<sup>3</sup>.

Eremu literarioan aipatu beharrekoa da gorputz-indarkeriarekin duen erlazioa ambiguo dela neurri berean. Testuan, erreinu

## OHARRAK

1 | Lan hau Gorputza eta Testualitatea (HUM2005-4159, 2005SGR-1013) ikerkuntza taldearen baitan kokatzen da eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoak egindako doktoretza aurreko l3 kontratuaren ondorio da.

2 | Giza eskubideen sistemak *ius cogens* arau gisa ezarri ditu —kontrako hitzarmenik onartzen ez dutela, hau da, ezein Estaturik ezein momentutan urratu ezin dituela— osotasun pertsonalaren eskubideari dagozkion arauak, esan nahi baita, gorputzaren kontrako tratu gordinen debekua, eta honek biolentzia mota horrekin erlazioatutako irudiekiko kontzientzia sortu du —hala nola, tortura, genero indarkeria edo genozidioak—, irudiaren ekonomiak errepresentazio horiei egiten dizkien kritiken begirada arretatsua eta konplexua bihurtuz. Hauek dira Ameriketako Gorteetan jurisprudentzia eragin duten kasuetako batzuk: “Caso Montero Aranguren y otros, supra nota 12, párr. 85; Caso Ximenes Lopes, supra nota 3, párr. 126; Caso de las Masacres de Ituango, supra nota 3, párr. 252; Caso Baldeón García, supra nota 3, párr. 117; Caso García Asto y Ramírez Rojas, supra nota 55, párr. 222; Caso Fermín Ramírez. Sentencia de 20 de junio de 2005. Serie C No 126, párr. 117; Caso Caesar, supra nota 13, párr. 59.”

3 | Espainian agerian geratzen den kontua, adibidez, Emakumearen Institutuaren erabakiekin, bortxaketa kolektibo sotil bat simulatzen zuen iragarkia erretiratuz edo *A Serbian film* (2010) nahiz *Saw VI* pelikulak zentsuratuz, beren gorputzen degradatzea dela-eta.

---

diegetikoa den heinean, Barthesek zioen bezala «no hay rampa» (2004: 28), hau da, irakurtzeko momentuan –edota idaztekoan ere– irrist egin eta erortzeko arriskua txikiagoa da. Barthesek esaten zuen testua «una figura, un anagrama del cuerpo» (2004: 27) zela, gorputzeko harremana eremu sinbolikora mugatuz. Eta bere «rechazo [por] la violencia» (2004: 12) onartzen bazuen ere, egiatan ukatzen zuena «[el] código que la impone» (2004: 7) zen, zeren eta biolentzia, beste edozein errealitate bezala, legitimotzat hartzen baita testuko hizkuntzan bertan. Irudi luke beraz, testua birsignifikatze espazio izanda ere, diegetikoa ez den biolentziak ezin diola errepresentazioaren komunikazio prozesuari iskin egin.

Dudako arrastoa jarraitzen da beraz. Bertan biolentziaren errepresentazio testuala pribilegio moduan aurkezten da, baina gorputz *errealaren* aurkako indarkeria sosegurako ezintasun bezala azaltzen da. Garrantzitsua da antzematea ezin dela Monginen biolentzia-irudien ekonomiaren eskema Latinoamerikan erabili, heterogeneotasunez eta desberdintasun anitzez betetako lurraldea baita. Egiatik zer edo zer baldin badu ere, ezin da kategorikoki eta berehalakotasunez aplikatu, besteren artean hainbat lekutan biolentzia erreala, estrukturalistak ere zelatatzen zituen biolentzia hori, testuarengandik oso hurbil dagoelako, hurbilegi.

Pasa den mendeko bigarren hamarkadatik aurrera Pablo Palacio idazle ekuadortarrak bere obran identitate eta ekintza *agerikodun* hainbat gorputz arraro sartu zituen. Bere kontakizunetako gorputz horiek batzen zituen ezaugarria indarkeria zen, forma anitzetan jasandako biolentzia eta gainera ia beti sexualitatearekin zerikusia zuena. Palacioaren kontakizunetan sartutakoan irakurleari bidaltzen zaion mezua «por medio de una paloma verbal» (Jitrik, 2000: 405) ailegaten da. Izan ere, badirudi urruntasunez idatzita dagoela, harriduraz, ziurgabetasunez. Baina beharbada usoaren metafora baztertuta geldituko da – bakearen ikur bezala bederen– zeren eta narrazio hauek «como una defensa al pánico» (López Alfonso 200: 375) osatzen baitira. Are gehiago, hizkuntzaren analisiari dagokionez, kontakizunok bere ipuinetan ohikoak diren esaldi motz eta ebakiak erabiliz eraikitzen dira, eta horrek «transpira violencia» (Castillo de Berchenko, 2000: 303).

Gai honen arabera, *Un hombre muerto a puntapiés* (1927) antologian biltzen diren bi kontakizunetako hainbat gorputz sexuatu eta barreiatuen biolentzia aztertzea da artikulu honen helburua, bere sexualitatearengatik kontrol sozialaren jo-puntuaren egon diren zenbait subjektu kontutan hartuz. Andeetako inguruak oso gatazkatsutzat jotzen dira bertan, arraza bereizketa eta bereizketa etniko, kanpoko eskusartze, edota egitura kolonial eta postkolonialak direla eta emandako prozesuengatik, eta erabat *identifikagarriak* dira bortxa jasan duten gorputz subalterno zenbaitzuk: indigenak, langileak,

emakumeak, *pobreak*, etab. Kurioso da, hala ere, ikustea Palaciok ez dituela erabiltzen biolentzia den gai korapilatsuaz hitz egiteko. Andeetako kanonetik urrun dauden baina aldi berean hain gizatiarrak eta harrigarriki ezagunak diren pertsonai absurdu alegietakoaren artean, badirudi biolentziaren zenbait forma aztertzeko aukera bakarra gorputz diegetikoaren eta gorputz errealairen artean dagoen lerro fina dela.

Gorputz arraroak dituzten *ezinezko* identitate hauek, garaiko literaturan arrotzak direnak, badute gainera saiakera hau sostengatzen duen *leitmotiv* bat: sexualitateetik eratzten diren gorputzak dira, eta sexualitatearen bueltan jartzen da mugimenduan biolentziaren erretorika. Horregatik da interesgarria gorputz eta identitate horietan bi tratu txar mota azterzea —emakumeen gorputzaren aurkakoa eta heterosexualak ez diren gorputzen aurkakoa— duela ia mende bat Andeetako lurraldean zegoen genero-indarkeriaren formen erakusle<sup>4</sup>.

## 1. Biak bat direnekoa: subjektu moderno zatikatua(k) eta bere zaugarritasunak

Zenbait gorputz eta identitatearen aurkako biolentziaz subjektu eta alteritate nozioekin hitz egiteko, egokia dirudi modernitatean egonkortutako kontakizun filosofikoetatik abiatzea. Garai honetan subjektuaren identitatea gorputzgabe, bateratu eta finko gisa definitu daiteke. Descartesek baieztatzen zuenez, subjektua zera zen: «un alma razonable» eta «[un] espíritu de entendimiento» (2002a: 116, 2002b: 156). Bestalde, Kantek subjektua «[como] identidad completa» (1970: 91) proposatzen zuen. Seguru aski idazkuntzaren arloan Rousseau izan da teorizazio horiek hobekien defendatu dituenak, izan ere, berak, erregistro autobiografikoaren bitartez, ni narratiboa definitu zuen «[como] uno solo» eta «distinto de todos» (1983: 13).

Unibertso teoriko horretan alteritatea ez zen existitzen eta *nia* —arrazionala, definitua eta hermetikoa— inposatzen zen, identitatearen printzipioan laburbildua: *ni, ni bezalakoxea naiz*. Hegel izan zen alteritatea gehitzearekin batera erregistratu zuena «[la] subjetividad absoluta» (Moros Ruano, 1995: 34), zeren eta «el conocimiento filosófico contiene lo uno y lo otro» (Hegel, 2005: 42). Hau da, *bat*aren parte den *beste*a agertzen da eszenatokian. Hala ere, beste hori ideal bat zen, modernoa, izpirituan kokatzen zena eta kontraesanik onartzen ez zuena<sup>5</sup>. Azkenean, Kierkegardak ere ezin izan zuen ikusi ez kanpokotasun gisa ezta haragitutako historia gisa ere, bere lan nagusiaren izenburutik, *O lo uno o lo otro* (1843), ondorioztatu daitekeen legez, non eta, gainera, badirudien hurrenekoa nahiago duela. Filosofiaren arloan Levinasek bakarrik eman zion gorputz bat

## OHARRAK

4 | Aurrerago frogatuko den arrazoirengatik erabiltzen dut ezezko identifikazioa.

5 | «Sólo lo espiritual es lo real; es la esencia o el ser en sí, lo que se mantiene y lo determinado —el ser otro y el ser para sí— y lo que permanece en sí mismo en esta determinabilidad o en su ser fuera de sí o es en y para sí» (Hegel 2005: 24).



besteari: «la epifanía de lo absolutamente otro es rostro en el que Otro me interpela y me significa. Es su sola presencia la que es intimación a responder» (2006: 62). Levinasen arabera, subjektua arduradun egiten duen bestelakotasun hura Beste handi baten bidez dator, eta Beste hori Jainkoa da. Gorputzen arteko kontaktu horrek azkenean filosofiaren subjektua hermetismotik ateratzen du, baina sinesmen erlijiosoek nabarmenki markatutako etika batekin.

Filosofiaren eremuan ematen den *bata* eta *bestearen* arteko subjektu topaketari buruzko azalpen horiek honako honetan daukate funtsa: identitaterik gabe zaila da zaugarritasunaren gaia kontutan hartzea, biolentziaren analisi teorikoa zailduko bailuke, eta are gehiago gorputzaren aurkako biolentziarena.

Palacioren literaturan identitatea funtsezkoa da zaugarritasunaren finkatze forma bezala (identitatea norbera den subjektu gisa ulertuta, eta bere parte den beste bati aurre egiten diona). Kontu hau hautemangarri den kontakizunak «La doble y única mujer» izenburua dauka, eta gorputz batzuen aurkako biolentziak daukan boterea islatzen du. Elkarri itsatsita jaio diren eta gorputz berbera duten bi emakumeren istorioa kontatzen du. Narratzaile intradiegetikoak egiten duen kontakizunaren aurkezpena honakoa da:

Mi espalda, mi atrás, es, si nadie se opone, mi pecho de ella. Mi vientre está contrapuesto a mi vientre de ella. Tengo dos cabezas, cuatro brazos, cuatro senos, cuatro piernas, y me han dicho que mis columnas vertebrales, dos hasta la altura de los omóplatos, se unen allí para seguir —robustecida— hasta la región coxígea. Yo-primera soy menor que yo-segunda (Palacio, 2000: 33).

Gorputzarekin egindako autorretratu honek —bi sexu-organo ote dauden esateaz ahazten denak— ez dauka bateratasun, gorpuzgabetasun eta bukatzeen digresio metafisikoetarako joera. Subjektibitatea kontrako eran definitzen da, adarkatzean, adierazpenaren ziurgabetasunean eta gorputzaren narrazio zatikatuan. Subjektuaren diskurtso hermetikoari erresistentzia egiten dion ahots bat dela esan daiteke, gorputzez *bata* eta *bestea* baita aldi berean, eta ez, Hegelek planteatzen zuen legez, *bata* eta *bestea* izpirituaren koherentzian. Erresistentzia hori, ordea, zaugarritasunetik dator, protagonist(ar)en kasuan bi diskurtsotan ikusten dena: niaren inposatze narratiboaren bidez egiten den hizkuntzan eta subjektuaren gaineko sexualitatearen arautegietan.

Narrazio nahaspilatuan molde narratibo rousseautarraren porrota antzeman daiteke, izan ere, emakumea —bikoitza eta bakarra— ezin da *hura bera* edo *bera bakarra* gisa deskribatu. Kontakizunean, estilo berezi bat edo hizkuntzaren arrarotze bat sumatu baino —Jakobsonen funtzio poetikoari esker, esaterako— gazteleraren kontrako halako salaketa bat irakur daiteke, hizkuntza horren artikulu dikotomikoen,

genero binarioen (maskulinoa eta femeninoa) eta subjektu, adjektibo eta aditzaren arteko komuntaduraren kontrakoa. Ezaugarri horiek hizkuntzaren gaitasunik eza areagotzen dute errealitate zatikatu bat definitzerakoan, non identitatea ezin den termino bateratuetan finkatu. Abangoardietako kontakizuna da, beraz, hizkuntzaren transgresioa eta berarekiko malgutasuna onesten ditu. Hain zuzen, ipuinaren hasieran, narratzaileak(ek), nahi gabe, parentesia darabil hurrengo adierazteko:

Ha sido preciso que me adapte a una serie de expresiones difíciles que solo puedo emplear yo en mi caso particular. Son necesarias para explicar mis actividades intelectuales y sus conformaciones naturales que se presentan de manera extraordinaria, al revés de lo que sucede con la mayoría de animales que rien (2000: 33).

Hau da, subjektuaren finkatzea eta bateratzea bilatzen duen hizkuntza hautsi egin behar da gorputzaren dibertsitatea adierazteko. Haa, erabiltzen den gaztelera ez da *zuzena*. Badirudi horrekin hizkuntza eratu duen mekanismo ideologikoa agerian uztea eta subjektibotasun modernoaren eta lehen pertsonan kontatutako narrazioaren arteko koherentzia bilatzen duela. Aipatu salaketa periferiatik egiten da erretorika berezi bat erabiliz. Narratzailea(k) bere(n) irakurleen aurrean desenkusutzen d(ir)a hizkuntzaren gehiegikeriazko erabileragatik, oker horren ardua espezialisten esku utziz: «me permito [...] pedir perdón por todas las incorrecciones que cometeré. Incorrecciones que elevo a la consideración de los gramáticos con el objeto de que se sirvan modificar, para los posibles casos en que pueda repetirse el fenómeno» (2000: 33). Modu honetan literatura-sistema eta gramatika interpelaten dira, zeina, Nebrijaz geroztik, Mingolori kasu eginez (2006: 50), identitatea definitzeko modu gisa inposatu baiten konkistatutako lurraldeetan, azpiratze-agenda ageriko batekin. Modernitatearen kontrako eta bertako gorputzen kolonizazio programaren aurkako erresistentzia sotil hori da gorputz honen gotorlekuetarik bat, eta, aldi berean, gorputz hau eta beste batzuk ahulago eta zaugarriago egiten dituen arrazoieta bat, ez dituztelako hizkuntzaren baitatik autoafirmaziorako eta autodefentsarako behar lituzketen tresna narratiboak menperatzen<sup>6</sup>.

Siamdar baten antzerako pertsonaia honek sexualitatearen eremuan dauka behar bada karakterizaziorik garrantzitsuena. Narrazio nahasian – *lehenengo* pertsonan eta bi *lehenengo* ahots tarteko – bata eta besteak hitza hartzen dute nahaspilan. Cixousek, *Le troisième corps* (1970) liburuan, idatzi eta berridatzi egiten zuen narratzaile bat erabili zuen, bere burua mozten zuena amets bat bailitzan, eta gainera idazkuntza logozentrista maskulinoari erresistentzia egiten zion, baita interpelatu ere. «La doble y única mujer» ipuinean siamdarra hirugarren edo laugarren gorputza da. Cixousen proiektu teoriko-narratiboaren aukera goiztiartzat –eta

## OHARRAK

6 | Gaztelera eta haren definizio identitarioa bere egiten ez dituztenek. Andeetako kasuan, adibidez, ketxua, kitxua eta aimara indigenak, beren sortzezko hizkuntzak gaztelera hizkuntza ofizialaren baitan gordetzen dituztenak. Berriro ere interesgarria da Mingoloren testua, *Historias locales: diseños globales. Colonialidad, conocimientos subalternos y pensamiento fronterizo* (2000), hizkuntz inposaketa sotil horiek isladatzen dituen, berrartikulazio identitariorako estrategia ezberdinak eskatuz.

---

ondorengotzat– irakur daiteke. Haatik, ez da horrela. Emakume bataren eta bestearen arteko bereizketa narratiborako izen emate eremura mugatu ez ezik genero-harremanetan ere islatzen den menakinismo bat agertzen da. Narratzaileak(ek) diosku: «yo-segunda tengo los ojos azules y la cara fina y blanca. Hay dulces sombras de pestañas. Yo-primera tal vez soy menos bella. Las mismas facciones son endurecidas por el entrecejo y por la boca imperiosa» (2000: 41). Hau da, siamdarrak, bere batasun bikoitzean, Cixousek (1996) berak hainbeste kritikaturako maskulino/femenino binarismoa errepikatzen du (eta ordena horretan gainera, zeren eta *lehenengo niak* denbora guztian indarraren eta inposaketaren ezaugarriak batzen baititu).

Zentzu horretan, identitate *arraroa* agian ez da hain arraro, Butlerri jarraituz, gorputzaren egituraketa «una repetición obligatoria de normas anteriores que constituyen al sujeto, normas que no se pueden descartar por voluntad propia» (2002: 64-65) baita. Performatibitate horrek –hirugarren gorputz batekin ere diskurtso binariotik ateratzeko ezintasunarenak– pertsonak bereizi eta desberdintzeko erabiltzen diren sexualitatearen mekanismoak batzen ditu. Eta performatibitate hori da bestelakotasuna ulertzeko –eta asaldatzeko– aukera ematen duena. Ipuinaren momentu jakin batean emakume bikoitz eta bakarrak galdetzen du: «¿Quién yo debía satisfacer *mi* deseo, o mejor *su* parte de *mi* deseo?» (2000: 41). Eta desioa –heterosexuala kasu honetan– gazte batekin pizten da. Gazteak, siamdarrari kasu gehiegirik egin gabe, berehala galtzen baitu kontaktua ber(ai)ekin, femeninoagoa den *batetan* ipintzen du arreta. Maskulinoagoa den *besteak* hala erantzuten du: «no sé bien si debo rabiarse por ella o si debo elogiarla. Al sentirme *otra*; al ver cosas que los hombres sin duda no pueden ver» (2000: 41). Hala, trama baten trazak osatzen hasten dira. Trama horretatik abiatuta alteritatea izendapen bihurtzen da, non *batak*, Levinasek zioen moduan, *bestearen* gorputzaren gaineko ardura daukan. Gizonak, honela, siamdarraren bestelakotasuna beregandik kanpoko izaki izendatzeaz gain, berarentzako ere arrotz bilakatu den gorputz horrengan bestelakotasun erregimena ezartzen du.

Horren harira Adriana Cavarerok proposatzen du gorputz batek bere bitxitasun estatusa soilik beste gorputz batek interpelatu eta *nor zara zu?* galdetzen dionean erdiesten duela. Bestelakotasunaren izendapenean bi gorputzen arteko ekintza da betebeharreko baldintza. Hain zuzen ere, erdarazko *vulnerable* hitza latinezko *vulnus* hitzetik dator. Horrek «zauria» esan nahi du eta larruaren eremuan kokatzen da: «skin as the site of radical, immediate, hairless and unprotected exposure. Vulnerable is here, in fact, the human body in its absolute nakedness, emphasized by the absence of hair, cover, protection» (Cavarero, 2011: 8). Gorputzen, azalen, arteko kontaktu hori –bata bestea baino *biluziagoa* izanik erasoak jasateko arrisku handiagoa duena, babesgarri gutxiago



baititu– baztertu ezineko errealitate bat da alteritatea nor den ulertu nahi badugu, ez bakarrik eremu sinbolikoan baizik eta baita materialean ere.

Testuan zehar gaztearen gorputzak bitan galdetzen du *nor zara zu*; siamdarrari galdetzen dio, desiraren parametro binarioak betetzen ez dituen emakume maskulinoari galdetzen dio, zatiketa sortuz horrela. Larruaren hizkuntza beharrezkoa da izendapen horretarako. Galderarekin eta erantzunarekin hierarkia bat bihurtzen da esplizitu: epaia ematen duen begirada maskulinoa da eta epaia bere egiten duen gorputza, femeninoa. «La dominación masculina, que convierte a las mujeres en objetos simbólicos, cuyo ser (*esse*) es un ser percibido (*percipi*), tiene el efecto de colocarlas en un estado permanente de inseguridad corporal o, mejor dicho, de dependencia simbólica» (Bourdieu, 2000: 86). Menpekotasunak heteronimia bat inposatzen du gehigarri gisa, hau da, goitik behera besteek sortutako arau sistema bat, osorik gorputz propioan ezartzen dena. Arau-sistema horren *leitmotiv*-a emakumeek beren buruarekiko distantzia bat markatzean datza, hau da, «entre el cuerpo real al que están encadenadas y el cuerpo ideal al que intentan incesantemente acercarse» (Bourdieu, 2000: 86). Molde subjektibo idealaren espa horrek, subjektu modernoaren oinordeko izanik, emakume askorengan egoera zaurgarria sortzen du askotan, larruak ez baititu heldu behar dion gizonaren moldearen kontrako arma subjektiboak. *Arraro* deitzeak, azkenean, emakumearen gorputza zatikatutako *beste* gorputz batean finkatzen du, siamdarraren kasuan agerikoa denez.

Zaurgarritasun bikoitz hori finkatu ondoren, hizkuntzari dagokionean egokia ez den heinean eta sistema patriarkaleko emakumea den heinean, gorputz horren biolentziaren nondik norakoak aztertu daitezke. Hain zuzen, protagonist(ar)engan bortxa gehien eragiten duten gorputzak gurasoenak dira. Etxeko giroan berriro ere narratzaile(ar)en identitate(ar)en inguruko galdera inplizitu bat azaltzen da, izendapen berehalako bat daukana erantzun moduan. Familiaren esparruan Siamdarrak harreman tirabiratsua dauka aitarekin:

Madre me tenía cierta compasión insultante [...] padre, cuando me encontraba sola me daba de puntapiés y corría; yo era capaz de matarlo al ver que, a mis llantos era de los primeros en ir a mi lado; acariciándome uno de los brazos, me preguntaba con su voz hipócrita: «que es lo que te ha pasado hijita» (2000: 37).

Kasu honetan ere haragiaren eremuan, materiaren eremuan, jazotzen da biolentzia. Aitak alabari *gorputzean* erasotzen dio, bere lurraldea markatuz alabarenean heteronimiaren sinbolo gisa. Gainera, oinetakoa erabiltzen du alab(ar)en larruaren kontra, gizakiaren hauskortasuna gogorarazten digun ahuldadea

areagotuz. Bere alabaren larrua denez – berearen herentzia bat– sortzezko kontrolaren etika bat ezartzen da, benetakoa menpekotze patriarkalarena.

Beste biolentzia mota bat ere azaleratzen da. Behin batean protagonistak(ek) aita salatuz begien bistan uztea erabakitzen du, eta honek mehatxu batekin erantzuten dio:

«Tendremos que mandar a esta pobre niña al Hospicio; yo desconfío de que esté bien de la cabeza; el doctor me ha manifestado también sus dudas. Caramba, caramba, qué desgracia». Al oír esto, quedé absorta. No me daba cuenta de lo que podía ser un Hospicio; pero por el sentido de la frase comprendí que se trataba de algún lugar donde se recluiría a los locos (2000: 37).

Geroago, mirabeei entzun ondoren, siamdarra ohartuko da ezen eroetxean «a todos los locos les azotaban, les bañaban con agua helada, les colgaban de los dedos de los pies por tres días, en el vacío» (2000: 38). Honela, bai disimulatutako eraso fisikoan bai ospitaleratzearen mehatxuan berriro ere identitate maskulino hori azaltzen da, siamdarraren gorputza sinbolikoki banatuz xede heteronomikoak medio. Hala eta guztiz ere, eszena honetan dagoeneko ez da gorputz bat beste gorputz bat zaurtu eta bortxatzen duena, baizik eta instituzio bat, subjektuaren gaineko begirada homogeinizatzaile baten bitartez beste modu bateko biolentzia erabiltzen duen egitura bat, diskurtso zientifikoaren biolentzia alegia, gorputza objektu bilakatu eta torturaren mekanismoak legitimizatzen dituena.

Adriana Cavarerorentzat ez bezala, Judith Butlerrentzat zaurgarritasuna, gorputzaren bestelakotasunaren areagotzetzat hartuz, arazo diskurtsibo bat da. Hortaz, ez da garrantzitsua gorputz batek beste bat arraro deitzea, sistema arduratzen baita automatikoki bestelakotasuna markatzeaz: «It is not necessarily a person who poses this question. An institution, a discourse, an economic system that asks, “who are you” seeks to establish a space of appearance for the Other» (Butler, 2011: 2-3). Kasu honetan zaintza estruktural erabateko bat praktikatzen du mediku-instituzioak, eta patologizatua izateko mehatxua erabiliz gorputz hau susmopean jartzen du. Ipuina, gainera, hemeretzigarren mendeko nahaste zientifiko eta metafisiko kutsu batekin bukatzen da. (Bietariko) Batek ezpainean azkura dauka eta odoljario mingarri batean bukatzen du. Gero, komentatzen du:

Ha venido el médico y me ha hablado de proliferación de células. En fin, algo vago, pero que yo comprendo [...], una de mis partes envenena el todo. Esa llaga que se abre como una rosa y cuya sangre es absorbida por mi otro vientre irá comiéndose todo mi organismo. Desde que nací he tenido algo especial; he llevado en mi sangre gérmenes nocivos... seguramente debo tener una sola alma... ¿Pero si después de muerta, mi alma va a ser así como mi cuerpo...? ¡Cómo quisiera no morir! ¿Y

este cuerpo inverosímil, estas dos cabezas, esas cuatro piernas, esta proliferación reventada de los labios? (2000: 42).

Zientziak arraro eta hilkor diagnostikatu/katalogatzen du, baina baitasendatu eta kondenatu ere; biolentziaren efektua ikus daiteke gorputz horren zatikatzean. Gorputz ia arrotza, poesiarik gabekoa, Descartes legatuak guztiz samindua –badirudi narratzaileak(ek) hainbat gorputz ez arautuen arimak zein forma zuen komentatzea *ahaztu* zitzaielako interpelatzen dutela--, babesgabe aurkezten da eta bere buruaren kontra zital bihurtzen da. Norberaren kontrako biolentzia hori ezartzean datza, apika, kontrolaren eta zigorraren mailarik landuena.

Diskurtso honek guztiak, haatik, balirudike Andeetatik kanpokoa, eskualde honek izan duen karakterizazio estereotipatuarengatik hain juxtu. Hala eta guztiz ere, erreferentzia interesgarri bat azaltzen da narratzaileak(ek) gogoratzen du(t)enean «un sujeto borroso [...], el señor Miller, aquel alemán con quien me encontré en casa de los Sánchez y que explicaba con entusiasmo el paralelogramo de las fuerzas aplicado a los choques de vehículos» (2000: 35-36). Erreferentzia arin hori, ingurune burgestuetako te bilkurak iradokitzen dituena, interesgarria da Andeetako testuinguruan, Prattek aipatutako anti-konkista praktikak direla eta: «estrategias de representación a través de las cuales los sujetos burgueses europeos buscan asegurar su inocencia en el mismo momento en el que ellos afirman la hegemonía europea» (Pratt 1997: 9). XVIII., XIX. eta XX. mendeetako esplorazio-bidai horien parte dira bai. Izan ere, bidaiokhasierako espainiar kolonizazioaren indar neurritz kanpokoaren orde bestea begirada bat darabilte: begirada zientifikoa alegia, lurraldea aztertu eta gorputzak katalogatu eta latinoamerikarren eta estatubatuar nahiz europar industriaren artean zubi-lanak egiten dituena. Horregatik, zientzia dela medio egiten den esplorazio-bidaiari egindako erreferentziak (non badirudien James Watt paralelogramoaren asmatzailea eta Humboldt bidaiari geografiaren aita kondentsatzen dituen figura bat azaltzen dela)<sup>7</sup> ezinezko gorputz hau Andeetako inguruan kokatzen du, diskurtso hauen lekuko den eta pairatzen dituen gorputz gisa<sup>8</sup>. Zientzia, baltsamiko bezain hilgarri, ezagutzaren molde zentral gisa izendapen ideal bat inposatzen duen subjektu lauso batekin lerratzen da berriro ere.

«La doble y única mujer» ipuineko tramak agerian uzten du zaurgarritasuna nola izendatzen den begirada maskulinitik abiatuta eta nola bi biolentzia maila dauden, gorputza/gorputza eta egitura/gorputza, protagonis(ar)engan: aita mespretxatutako alaba –Elektraren konplexuarekin *bitan* hausten duena– eta diskurtso zientifikoak mehatxatutako *arraroa*. Beharbada gorputz *irreal* honek lagunduko digu sakonago ulertzen Andeetan emakumeen gorputzek jasaten duten biolentzia *erreala*.

## OHARRAK

7 | Zientziaren garapenean bi giltzarri, baina baita ere oinarritzko bi ikono «lehenengo mundua» deitutakoaren hedapen industrial Latinoamerika bezalako inguruneetan gauzatzeko.

8 | Ezinezkotasunaren ideia honek errepasso historiko bat behar du, zeren Santacruz Pachacutik jasotako Ipa Mama Huaco «*queer mother*» (hirugarren genero bat planteatzen duena, indioaren eta zuriaren nahaste sinkroniko bat) bezalako erreferentziak, iruditeria prehispanikoaren parte ziren, eta, eskualde hartan, gorputz-anbiguotasuna gorputzen erlazio moduetan existitzen zela erakusten zuten. Horregatik, errepresentazio hauek hain zuzen ere berrepresentatzea behar dute (Horswell 2005: 160).

## 2. Bata bestearren gainean: egikera nomada eta ni lekukoaren malko *bertikalak*

Identitate garaikideari egindako ekarpenen artean Rosi Braidottirena da proposamen teoriko interesgarrienetakoa, eta zerari buruz ari da, «una identidad (sexual, racional, social) pero no una identidad fijada, válida para todos los tiempos» (2004: 67). Baina, teorialariak argitzen digu erabateko bidaia identitario horretan ezin dela zeharkaldia gidarik eta atsedetik gabe egin, zeren eta «necesitamos puntos parciales de anclaje» (2004: 67). Braidottiren *identidad nómada* hori iparrorratz izateko proposamen bat litzateke, non subjektuak beharko lituzkeen «situated connections that can help him/her to survive» (1994: 33). Horrela, egonkortasuna subjektibotasunaren berezko parte ote den zalantzan jartzen du eta bidaia identitarioa agentzia pertsonalaren bidez finkatzeko aukera irekitzen du. Hala, subjektuak ekonomia produktibo batean finkatuz kategorizatzen dituen begirada patriarkalarengandik alde egiteko ainguratze boteretsuena da generoa, argumentu politikoa den aldetik. Horregatik, identitate nomada finkatze identitariotik urruntzen da errekurtsio subjektibo berrien bilaketa proposatuz –leku batetik bestera errekurtsio naturalen bila alderrai dabilen herria bezala–, jakinda posizionamendu politikoa hil edo bizikoa dela honelako subjektu ezegonkor moldearen biziraupenerako.

Politikoki berrantolatzen den genero ordenagabearen proposamen honek kontutan hartzen du identitate *bat* sexualitatearen eremu diskurtsiboaren baitan ematen diren ekintza performatiboekin eraikitzen dela. Foucaultek (2005), honela, sexu-ekintza azpimarratzen zuen identitatearen esleipen sistema bateko ekintza kodifikatu bezala. Hain juxtu, ekintza sexualak –baita ekintza performatiboa ere– *plazeren erregimen* baten azpian egon behar zuen.

La reflexión médica y filosófica lo describe [al acto] como amenazador, por su violencia [...] por el agotamiento que debe conservar y mantener, y como marca de la mortalidad del individuo aun asegurando la sobrevivencia de la especie. Si el régimen de los placeres es tan importante, no es simplemente porque un exceso pueda producir una enfermedad, sino porque, en la actividad sexual en general, se reúnen el dominio, la fuerza y la vida del hombre (Foucault, 2005: 117).

Ekintza sexuala biolentotzat hartzen da. Horregatik subjektuak biolentzia berarena izan ez dezan saiatzeko da egitura, pertsona produktibotik bertatik kontrolatu behar baita. Sistemaren beraren eginbeharra da «controlar su violencia y dejarla jugar dentro de límites convenientes» (Foucault, 2005: 117-118). Hori dela eta saiatzeko da Braidotti bitariko sistema ezegonkortzen, eta ez hori bakarrik, baita estatu-biolentziarekin eta biziraupenarekin lotzen den ekintza sexual maskulinistaren pertzepzioa ezegonkortzen ere. Berak, hala ere, ez dio biolentziari uko egiten eta, hain zuzen, biolentzia nomada bat proposatzen du, «violence or rebellious females» (Braidotti, 1994: 63) bezala definitzen duena.

Biolentzia sistemaren produktutzat eta, aldi berean, berari egiten zaion erresistentziatzat hartzen duten bi hausnarketa hauek garrantzitsuak dira bi gauza ulertzeko. Alde batetik, sexu-ekintza biolentzia eta produkzioaren kontrola desplazatzen dituen diskurtso batek zuzentzen duela<sup>9</sup>; eta bestetik, zenbait gorputzek artikulazio politikoaren bitartez egin behar diotela iskin beren ekintzen aurkako biolentziaren inperioari.

«Relato de la muy sensible desgracia acaecida en la persona del joven Z» ipuinean Palaciok bi kontu horiei ekiten die. Ipuinean, hipokondriakoa den medikuntza ikasle baten istorio ironikoa kontatzen da, subjektua objektu bihurtuz. Honela, patologia ezberdinak aipatzen diren medikuntzako eskuliburu bat bailitzan osatzen da trama, jarraian Z gazteak ikasitako gaixotasunak nola pairatzen dituen kontatzeko. Pertsonaia giltzaduretako erreuma larri batekin hasten da, gero hauteman gabeko gaixotasun bat pasatzen du, ostean odoluzkiak, zainbilduak eta *molluscum pendulum* eta, azkenean, hil egiten duen kolpea takikardia paroxistiko oinarrizko bat da. Hauxe da *molluscum pendulum*-en deskribapena:

#### *MOLLUSCUM PÉNDULUM*

El profesor ha enseñado a sus alumnos al pobre hombre que tiene *molluscum pendulum*. Una gran bomba al final del raquis. Bomba colgante, badajenate.

En Secreto, me refirió mi amigo Z que todas las noches se llevaba la mano «al sitio», tembloroso, presintiendo encontrarse de improviso con la gran bomba que le vapulearía los muslos (2000: 49).

Badira, honez gain, kontakizun honen eraketa narratiboari dagozkion bi gauza interesgarri. Alde batetik, badira Z-z gain beste pertsonaia batzuk, A, B, eta C, protagonistaren medikuntzako ikaskideak. C narratzailea da eta gertakizunen *lekuko* izaera dauka. Ordena jauregitarraren teknika eta logika honetan Z gaztea alfabetoko azken letra bihurtzen da, saileko azken ikur arraroa izatera kondenatua. Letrak baliatzen dituen izendapen teknika honen eraginez, giza-hizkuntzan diskurtso estrukturalako subjektuaren metafora bailitzan txertatzen den izaki bat bihurtzen da. Era berean, identitatea alfabetotik abiatuta artikulatzeko metodo honek badu *bertute* bat, pertsonaiak anonimotasunean uzten dituela alajaina, identitatea gordeta hainbat gaiez argiago hitz egingo balitz bezala.

Bigarrena espazioaren adarkatzean datza, Z-ren gorputzaren eta mediku-eskuliburuaren bidez burutzen dena. Sexualizazio estrukturalaren prozesu baten pean garatzen da trama eremu hauetan. Deskribaturiko gaixotasunetatik hiru, kontakizunean azaltzen direnen erdia, sexualitatearekin –batez ere genitaltasunarekin-- lotutako arazoei dagozkie eta, gainerakoetan, sexuaren parafernaliarekin lotutako ekintzei egindako keinuak daude<sup>10</sup>. Hauetako bakar batean ere ez da konponbidea aipatzen, soilik diagnostikoa. Horrelan, Z subjektua

## OHARRAK

9 | Arazo konplexua, non modu batean edo bestean onartzen baiten gaiztakeria naturalaren diskurtso hobbesianoa.

10 | Gela hezeak, galtzerdiak eta «[un] sillón quien se posesionaba de su cuerpo» (200: 50).



eskuliburuan eta bere gorputzean barna dabil (tramaren ekintzak ahalbidetzen dituzten espazioetan barna) azterketa-objektua bailitzan.

Kontakizunaren eraikuntza horri esker, Z identitate nomada baten moduan dabil baina, aldi berean, diskurtso medikoak arautzen du: ikasle/gaixo eta subjektu/objektu da plazeraren erregimenaren pean. Pertsonaia guztiak dira funtzionalak narratiboki. Hala ere, badirudi Z ohikoa baino pertsonaia *funtzionalagoa* dela, hain da funtzionala non *identitate* moduan ere existitzen ez baiten, bere izen edo deskribapena ez baita interesgarria. Gehiago inporta du bere egintzen analisiak eta horiei ezartzen zaizkien mediku-zigorak, sendatzerik bilatzen ez dutenak. C, zientzia pertsonifikatzen duen ahotsa izanik, badirudi lagun bat baino gehiago Z gaztea bere bizitzaren bukaeraraino zelatatuko duen espioi bat dela.

Palazioren ipuinean hainbat keinu sotil egiten zaio protagonistaren sexualitate *okerrari*. C-k bere lagun Z-k harrapatu duengernubideetako gaixotasuna kontatzen duenean ez dio kontakizunaren izenburuari, beste kasuetan bezala, gaixotasunaren izena eman, baizik eta patologiaren izena «CAPÍTULO DE LECTURA PROHIBIDA» esaldiarekin trukutzen du. Gaixotasunaren etiologia azaltzen denean honela dio: «conocida pero inefable». Hau da, gauza jakina izan arren ezin da hitzez azaldu. Ez esate horrek Oskar Wilderen lehenengo epaiketean Charles Gillek bota zuen esaldi famatua dakar gogora: «¿Cuál es el amor que no se atreve a decir su nombre?», zeinarekin sodomiaren bekatu higuingarriaren akusazio publiko bezain pribatua egiten baitzen. C Gillen antzerakoa da, isiltasun ozen batekin interpelitzen baitu Z bere lekua bestelakotasunean ipiniz.

Antzerako zerbait gertatzen da zainbilduen gaixotasuna deskribatzen denean. Zeharkako estilo librearen bidez C-k bere ahotsa Z-renarekin nahasten du eta honakoa kontatzen du:

habiendo dos causas promotoras de este terrible mal, las causas *profesionales* y las *mecánicas*, una de las dos, irremediabilmente, debe haber operado sobre mi organismo. La prolongada posición vertical... mozos de hotel... ¿He dicho yo mozo de hotel? Pero debo sentarme ¿por qué estoy parado? Las ligas... ¿por qué me pongo las ligas? (2000: 49).

Z gaztea, galtzerdiak erabiltzen dituen, mutil gazteekin maiz ibiltzen dena eta estereotipoen eraginez gaitz benereoeekin lotzen dutena, bere ekintzen bitartez araututako sexu-ekintzak –ugaltze helburua duena eta heterosexuala-- eta izendatutako genitalak – maskulino/femenino binomioa -- urratzen dituen pertsonaia gisa eraikitzen da.

Azkenik, beste keinu bat ere ageri da, esanguratsuena agian, Z-ren ikasketa modua bezalako ezinbesteko gauza baten azalpenetik aterata: «Mi amigo Z pudo estudiar la materia íntegra sobre sí

mismo, progresivamente, a medida que su ojo hecho de tragedia se comía las páginas [...] Aunque no era tuerto digo “su ojo” porque es mejor decir “su ojo” que “sus ojos”» (2000: 48). Kontaketa ambigua bada ere, badirudi begi horrek uzkiari egiten diola erreferentzia<sup>11</sup>, homosexualen hilobiaren papera jokatzeko duen gorputz-atala Bersaniren esanetan. Izan ere han, ekintza heterosexualetan hain gutxitan parte hartzen duen gorputzaren parte horretan, gizon heterosexualak zigor sodomita burutzen du. Bersanik gorazarre egiten dio alde harri era berean subjektu homosexualentzako duen potentzialarengatik, «for its very potential for death» (1988: 222). Uzkia da baita ere plazer ez produktiboaren ikur, ugalketatik bereizia dagoena. Latinoameriketako medikuntza ere gorputz-atal horren kontra aihertu zen. Luis Montané mediku kubarra izan zen guztietan nabarmenena. 1980ko bere ikerketa halaxe bukatzen zuen: «así es, señores, que los signos clásicos de la pederastia pasiva, *infundibu*, relajamiento del esfínter y caída de los pliegues, dilatación del ano, se encuentra de un modo evidente en nuestros pederastas» (2010: 66). Antropologia fisikoaren korrante hau Latinoamerika guztian ezarri zen higienismoaren arora heldu arte. Eskola honek ere uzkiari gorputz homosexualari itsatsia eta zitala iritzi zion. Kontakizuna 1925ean kokatu duen Palacio *begi okerraren* narratiba azaleratzen duten diskurtso guzti hauen hartzaile da.

Biolentzia heterosexista hau espazialki lurralde geografikoan bakarrik ez, baizik eta gorputzaren eremuan ere kokatu behar da. Garrantzitsua da puntu honetan Cavarerorengana eta zaurgarritasunaren ideia bueltatzea. Aurretik ikusi bezala, zauriarekin erlazionatzen den *vulnus* hitzak ekintza bat dakar berarekin: «the result of a violent blow, dealt from the outside with a cutting weapon that tears the skin» (Cavarero, 2011: 8). Teorialariak aipatzen du mendebaldeko iruditerian zaurgarritasunaren esanahia gerraren performancearekin erlazionatzen dela, bestea defentsarik gabe uzten duen gerlari iletsuarekin. Eta hemen dago sustraietako auzia: zauria eragiten duen gerlaria, *ni* bat dena, defenditzerakoan zutik geratzen da zaurituaren ondoan, eta erlazio bertikalarekin bizirik irautea irudikatzen du. Zauritutakoa horizontalki lurrean datza, zutik dagoenari bere boterea gogoraraziz, eraso bortitz batetik sortutako boterea, alegia. Gorputzen arteko harreman bertikal hau bere horretan aplikatu ahal zaio erlazio homo/heterosexualari. Cavarerok honela burutzen du: «there is no need to remind you Foucault’s analyses of the various straightening dispositives or the fact that, in English, heterosexuality is coded as “straight”» (2011: 16-17). Hau da, biolentziaren iruditerian hetero/homo gorputzen arteko erlazio geometrikoa (edo fisikoa, kontutan hartzen badugu erlazioen sakonera eta historia) funtsezkoa da. Ni bertikala zuzena da (*straight*) eta gorputz homosexualako uzkia bere hilobiaren forma marrazteko metafora bat besterik ez da. Hortaz, homosexualitatea, plazerren erregimenera doitzen ez denez, sinbolikoki eta narratiboki zaurgarria izan behar duen identitate bat da,

---

## OHARRAK

11 | Sadek eta Bataillek erabilitako errekurtsoa, Martin Jayk bere *Ojos abatidos* (2007) testuan aipatzen duen bezala.

zeinean ezin den elkarrizketaren erlazio horizontal bat existitu, baizik eta biolentziaren erlazio bertikala. Jarrerazko lotura hori, bertikala/horizontala, hetero/homo, zuzena/uzkia, sexualitatearekin erlazionatzen da zuzenean, biolentziaren eta gerraren erakustaldi maskulinoarekin, mundu zibilizatuan gorputz horien erasoez diskurtso medikoa era objektiboan arduratzeko beharrarekin.

Narrazioa pertsona anonimoaren heriotzarekin eta C-ren *lantuarekin* bukatzen da: «Una lágrima (¿una lágrima? ¡Oh: así lo ponen en las coronas fúnebres!) Una lágrima sobre los huesos de mi amigo» (2000: 50). Azterketa historiko honetan, uzkia heriotzaren metafora izanik, Palacioren garai higienistatik hasita Bersanirenganainoko arrasto jarrai bat sortzen da, azken horrek HIESaren krisiaren erdian idatzitako saiakera gogoan: C-ren malkoak gerlariaren malkoak dira, bizirik irauten duenarenak, diskurtso medikoak subjektuarenak. Negar egitearen ekintza modu ironiko batean egituratzen da, modu sadikoan kasik, bestea (*okerra*) etzanda egonik zutik egoteagatik. Horrela patu biolento bat osatzen da gorputz zaurgarri eta biluzi honen gainean, lehendabizi mediku-eskuliburuan eta, gero, gorputzean hizkiratzen den eraso suharra jasateko prest dagoena.

Kasu honetan muturreko biolentzia zerak sortzen du: Z subjektuak, nomada izanda ere, bidaiatu eta identitatez aldatu beharra izanda ere, ez dauka bere bidean aingurarik jartzeko aukerarik. Izan ere, Ekuadorko 20ko hamarkadako agentzia pertsonala, diskurtso mediko eta juridikoak hain markatua<sup>12</sup>, mugatua zen. Z, pentsatu litekeenaz bestera, ez da hipokondriako bat, baizik eta medikuntza-subjektu/-objektu bat. Ez da postmodernitatearen diskurtsoak urratzeko bere identitatea aldatzen duen nomada bat, baizik eta errepresaliatu politiko bat, plazera bere gorputzaren kontrako xede desberdinekin araututako egitura baten barnean adierazi beharrean dagoena.

Azken batean, Nunokawaren jarrera jarraituz –heriotza gizarte patriarkalean homosexualitatearentzat «como una definición» (1991: 312) dela esaten du–, Palacioren kontakizunak heteronormatibitate at dauden desirak dituen gorputz bat proposatzen du, horregatik beragatik, deskantsurako aukerarik gabe diskurtso medikoak alderrai ibiltzera zigortua izan dena.

Andeetako espazioan berriro ere heteronormatibitate kanpoko desirak dituzten gorputz arraroen errealitatea ikusezin bihurtzen saiatzen ari dira hainbat diskurtso politiko<sup>13</sup>, gorputz hauek kanpotik *inportatuak* bailiran eta beren gorputzarekin batera beste identitate baten bila joan beharko bailuten. Ikuspuntu kritiko batetik garrantzitsua da gogoratzea nola kontatzen zen zenbait literatur testuetan *in vitro* biolentzia, irakurleak *irrist* egin eta kontutan hartu dezan alde batetik, espazioak eta errealitate sozialak hainbat gorputz urratuekin duen erlazio nabarmena eta, bestetik, gorputzen arteko zenbait harreman *inklinatzeko* beharra.

---

## OHARRAK

12 | Ekuadorren, ekintza homosexualei 4 eta 8 urte bitarteko kartzela-zigorra zegokien, eta 97rarte ez ziren despenalizatu.

13 | 2010eko apirilaren 21ean, Tiquipaya izeneko boliviarrak herrian egindako Klima Aldaketari eta Ama Lurrari buruzko Munduko Herrien Biltzarraren baitan, Evo Morales presidentek herrialde europarrek naturan egiten duten eskusartzea kritikatu zuen, eta adierazi zuen, bera eta bere laguntzaileen irri artean, «[que] el pollo que comemos está cargado de hormonas femeninas, por eso los hombres cuando comen este pollo tienen desviaciones en su ser como hombre» (Ascui, 2010).

## Bibliografía

- AZCUI, M. (2010): «Transgénicos y hormonas causan calvicie y homosexualidad, según Evo Morales», *El País*, [21/02/10], <[http://www.elpais.com/articulo/sociedad/Transgenicos/hormonas/causan/calvicie/homosexualidad/Evo/Morales/elpepusoc/20100421elpepusoc\\_7/Tes](http://www.elpais.com/articulo/sociedad/Transgenicos/hormonas/causan/calvicie/homosexualidad/Evo/Morales/elpepusoc/20100421elpepusoc_7/Tes)>.
- BARTHES, R. (2004): *El placer del texto y lección inaugural*, México: Siglo XXI.
- BOURDIEU, P. (2000): *La dominación masculina*, Barcelona: Anagrama.
- BRAIDOTTI, R. (1999): *Nomadic Subjects*, New York: Columbia University Press.
- BRAIDOTTI, R. (2004): *Feminismo, diferencia sexual y subjetividad nómada*, Barcelona: Gedisa.
- BERSANI, L. (1988): «Is the Rectum a Grave?» en Crimp, D. (ed.), *AIDS: Cultural Analysis, Cultural Activism 6*, Massachusetts: MIT Press, 197-222.
- BUTLER, J. (2002): «Críticamente subversiva» en Mérida, R. (ed.), *Sexualidades Transgresoras*, Barcelona: Icaria, 55-80.
- BUTLER, J. (2011): «Precarious Life, Vulnerability, and the Ethics of Cohabitation», *Jornades Cos, memòria i representació*, Bellaterra. Texto no publicado.
- CAVARERO, A. (2011): «Unbalanced inclinations», *Jornades Cos, memòria i representació*, Bellaterra. Texto no publicado.
- CASTILLO DE BERCHENKO, A. (2000): «Pablo Palacio y las formas breves: poemas y cuentos», en *Pablo Palacio: obras completas*, Poitiers: CRLA-Archivos, 273-309.
- CIXOUS, H. y CLÉMENT, C. (1996): *The Newly Born Woman*, Londres: Tauris, 64-112.
- DESCARTES, R. (2002a): *Discurso del método*, Madrid: Tecnos.
- DESCARTES, R. (2002b): *Meditaciones*, Madrid: Tecnos.
- FOUCAULT, M. (2005): *La historia de la sexualidad 2. El uso de los placeres*, México: Siglo XXI.
- HEGEL, G.W.F. (2005): *Fenomenología del espíritu*, México, Madrid, Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.
- HORSWELL, M. (2005): *Decolonizing the sodomite. Queer Tropes on Sexuality in colonial Andean Culture*, Austin: University of Texas Press.
- JITRIK, N. (2000): «Extrema vanguardia: Pablo Palacio todavía inquietante» en *Pablo Palacio: obras completas*, Poitiers: CRLA-Archivos, 403-413.
- KANT, I. (1970): *Crítica de la razón pura*, Buenos Aires: Editorial Losada.
- LEVINAS, E. (2006): *Humanismo del otro hombre*. México: Siglo XXI.
- LÓPEZ ALFONSO, J. (2000): «El nihilismo en los cuentos de *un hombre muerto a puntapiés*» en *Pablo Palacio: obras completas*, Poitiers: CRLA-Archivos, 375-390.
- MIGNOLO, W. (2006): *The Darker Side of the Renaissance: Literacy, Territoriality and Colonialization*, Michigan: University of Michigan Press.
- MONGUIN, O. (1992): *Violencia y cine contemporáneo*, Barcelona: Paidós.
- MONTANÉ, L. (2010): «La pederastia en Cuba». En *Mapa Callejero: Crónicas sobre lo gay desde América Latina*. Buenos Aires: Eterna cadencia. 52-69.
- MOROS RUANO, E. (1995): *La filosofía de la liberación de Enrique Dussel*, Mérida: Universidad de los Andes.
- NUNOKAWA, J. (1991): «“All the Sad Young Men”: AIDS and the Work of Mourning», en Fuss, D. (ed.), *Inside Out*, Nueva York: Routledge, 311-323.
- PALACIO, P. (2000): *Pablo Palacio: Obras completas*, Poitiers: CRLA-Archivos.
- PRATT, M. L. (1997): *Ojos imperiales. Literatura de viajes y transculturación*, Universidad de Quilmes: Buenos Aires.
- ROUSSEAU, J.J. (1983): *Las confesiones*, Madrid: Espasa.